

Aste Santuko

Zientzia

Tailerrak



aranzadi
zientzia elkartea





INFORMAZIO PRAKTIKOA & IZEN-EMATEA

Aranzadi Zientzia Elkarteak etxeko txikientzat aste santuko zientzia tailerrak antolatu ditu. Ekintza hauek apirilaren 3tik 6ra arte iraungo dute eta Donostiako Zorroagagainako egoitzan egingo dira. Bertan umeei Euskal Herriko bizitza tradizionalan erabiltzen ziren elementuak ezagutuko dituzte. Egun imaginatzen ez dituztenak, txorien behaketan murgilduko dira eta espezieak ezberdintzen ikasiko dute, inguruko anfibioak ikusteko irteera egingo dute eta gure eguzki sisteman dauden bizilagunak ezagutuko dituzte.

Tailerren iraupena: 9:30-13:30

Adina: 8-12 urte

Izen-ematea: <http://bibe.me/ekitaldiak-aranzadi>

Informazioa: 943 466 142 (A-O, 9:00-14:00)

Salneurria: 15€ (bazkideak / familia ugariak) - 20€ (ez-bazkideak)

Prezioak tailer bakoitzeko dira. Tailerren bonoa deskontua dauka.

Beharrezkoa da izena ematea martxoaren 28a baino lehen.





APIRILAK 3

Euskal Herriko bizimodu tradizionala

Tailer honetan parte hartzen duten umeek jokuen bitartez bizimodu tradizionalean erabiltzen ziren hainbat elementu ikusi eta erabiltzen ikasiko dute, adibidez: kaikua, argizaiola, laiak, erlauntzak, ...




cc by sa GFA (Gordailua)

cc by sa GFA (Gordailua)

APIRILAK 4

Hegaztien bitxikeriak ezagutu nahi?

Hegaztien ezaugarri ezberdinak ikasiko ditugu: ezaugarri fisikoak, jokaera, ekologia, bitxikeriak. Eta naturaren kontserbaziorako hegaztien behaketak duen garrantzia. Inguruko hegaztiak behatzera joango gara eta espezie ezberdinak bereizten ikasiko dugu.





APIRILAK 5

Donostiako animalia ezkutuak ezagutu nahi?

Donostiako parke, lorategi edota bestelako habitat artifizialek badute bere natur balioa eta berau ezagutzeko bisita gidatua antolatu dugu. Bionaitasunaren aldetik parke eta lorategi hauen balioa ezagutzeko helburuarekin.



APIRILAK 6

Eguzki Sistema, gure auzoa

Tailer honetan gure planetatik aterako gara gure Eguzki Sistemaren dauden bizilagunak hobeto ezagutzeko. Gugandik gerturik dagoen izarra bisitatu dugu, hau da, Eguzkia, eta bere inguruan mugitzen diren objektu guztiak: planetak, planeta enanoak, asteroideak eta kometak.

